# Animalien alderdi barregarriena erakusteko argazki-lehiaketa Instagram bidez

*'The Wildlife Comedy' erakusketaren testuinguruan jartzen du abian Cristina Enea Fundazioak lehiaketa hau. Zuen maskoten edota bestelako animalien argazkiak jaso nahiko genituzke, egoera bitxi eta barregarrietan erakusten dituzten. Epaimahaikide lanetan Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko kideak izango ditugu laguntzaile.*




**Donostia, 2022ko urtarrilaren 12a.-** Cristina Enea Fundazioaren egoitzan (Mandasko Dukea, 66 – Donostia) 2022ko martxoaren 13ra arte ikusgai egongo den erakusketan dauden irudiak eskuratzeko aukera eskainiko du Cristina Enea Fundazioak, argazki-lehiaketa baten bidez. "*Badakigu erakusketako argazkiak munduko txoko ezkutuenetan egin dituztela profesionalek, denbora eta pazientzia handiz, baina jende arruntaren argazkiak jaso nahi ditugu, maskotei pose, jarrera eta egoera barregarrietan ateratakoak, edo natura-inguruneko eszena bitxienak, hala nola parke eta mendietakoak*", azaldu du Eneko Calvo Cristina Enea Fundazioko erakusketa-proiektuetako arduradunak, eta parte hartu nahi duten pertsonek Instagram bidez egin ahal izango dutela gaineratu du, fundazioaren kontua aipatuz (@cristina.enea).

Jasotako argazki guztien artean, deigarriena aukeratuko da eta saridunak erakusketan dauden argazkietako bat eskuratuko du. Gainerako irudien artean zozketa bat egingo da, eta zorionekoa den argazkiaren egileak erakusketan erakutsitako argazkien artean irudi bat ere jasoko du. Epaimahaikide lanetan **Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko** kideak izango ditugu laguntzaile. Aipatu elkartea, gainera, Cristina Enea Fundazioko neguko jardueren agendaren amabitxia da.

**Argazkiak enkantean eskuratzeko aukera ere**

Era berean, argazkiak enkante bidez eskuratzeko aukera ere izango da. *"Erakusketa bisitatzen duten pertsonei irudiren bat edo batzuk eskuratzeko aukera eskainiko diegu, bakoitzarengatik zer kopuru ordaintzeko prest leudeken esateko aukera eskainiz, eta erakusketa amaitzean, argazki bakoitzeko kopuru handiena eskaini dutenek, kopuru horren truke eskuratu ahal izango dute"*, azaldu du Calvok. Horrela, irudiekin bildutako diru guztia Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko Elkarteari eta Gunung Palung Orangutan Conservation Program Save Wild Orangutans elkarteari emango zaie.

cristina enea
FUNDAZIOA

# Concurso fotográfico a través de Instagram para mostrar la parte más graciosas de los animales

*En el marco de la exposición fotográfica 'The Wildlife Comedy', Fundación Cristina Enea pone en marcha este concurso donde queremos ver situaciones curiosas y graciosas de vuestras mascotas o demás animales. Para las labores de jurado, contaremos con la colaboración de miembros de la Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa.*




**Donostia / San Sebastián, 12 de enero de 2020.-** Las imágenes que se encuentran en la exposición The Wildlife Comedy, que se podrá visitar en la sede de Fundación Cristina Enea (Duque de Mandas, 66 – Donostia / San Sebastián) hasta el próximo 13 de marzo de 2022, se podrán adquirir a través de un concurso fotográfico. *"Sabemos que las instantáneas de la muestra las han realizado profesionales en los rincones más recónditos del planeta, con mucho tiempo y paciencia, pero queremos recibir fotografías de la gente de a pie, sacadas a sus mascotas en poses, actitudes y situaciones graciosas, o de escenas curiosas procedentes del entorno natural, como parques y montes"*, ha explicado Eneko Calvo, responsable de proyectos expositivos de Fundación Cristina Enea, quien ha añadido que las personas que quieran participar lo podrán hacer a través de Instagram, mencionando en las fotografías a Fundación Cristina Enea (@cristina.enea).

Entre todas las fotos recibidas se elegirá la más llamativa y la persona que resulte agraciada obtendrá una de las fotografías presentes en la muestra. Entre las restantes imágenes se realizará un sorteo y el autor o autora de la foto que resulte afortunada, también recibirá una imagen de entre las mostradas en la exposición. Para las labores de jurado, contaremos con la colaboración de miembros de la **Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa**, la que, a su vez, es madrina de la agenda de actividades de invierno de Fundación Cristina Enea.

cristina enea
FUNDAZIOA

**Posibilidad de adquirir las imágenes a través de una subasta**

Además del concurso, también se podrá adquirir alguna de las imágenes de la muestra mediante el procedimiento de subasta. *"Ofreceremos a las personas que visitan la muestra la posibilidad de pujar por alguna o algunas de las imágenes, y al finalizar la exposición, quienes hayan ofrecido la mayor cantidad por cada fotografía, podrán adquirirla por esa cantidad"*, ha explicado Calvo. Así, todo el dinero recaudado con las imágenes será cedido a la Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa y a la asociación Save Wild Orangutans, Gunung Palung Orangutan Conservation Program.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos: DONOSTIA SAN SEBASTIÁN · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · ETORKIZUNA ORAIN Es futuro
Babesle iraunkorra | Colaborador permanente: añarbe urak aguas